



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Azter dezagun!

Haur Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Harmonian hazten eta komunikazioa eta errealitatearen adierazpena

Sar zaitez basoaren magian, eta ezagutu natura ikaskuntza- eta bizitza-iturri gisa.

Urdaibaiko Ekoetxeko hariztian 2 ordu inguruko esperientzia honetan, baso-eskolen metodologia aplikatuko dugu ingurunea ikertu, jolastu eta esploratzeko.

Jolasaren eta behaketaren bidez, ikasleek beren sormena, kontzentrazioa eta hizkuntza garatuko dituzte, ingurumenaren kontserbazioaren garrantzia ezagutzen duten bitartean.